

PREDIKUAK ZARAITZU, 1780

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Jose M. Satrustegi, 1987, Euskal testu zaharrak I, Euskaltzaindia, Iruña.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego
Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka,
nahi bezala erreproduzi daitezke.

PREDIKUAK ZARAITZU, 1780

I

Dominica 2.^a de Adviento. Año 1780.

Cum audisset Joannes in vinculis opera Christi, mitens duos de discipulis suis ait illi, tu es
qui venturus est an alium expectamus.

Mat. 11, v 2

Avebati ebaquicen bazaizco egalac ecusten dizugu eztaitaquela bola ceren faltabaizayo
gauzaric principalenac bolaceco; christiobatean retrato verdaderoa, Orabat duzu
munducontan christiobat Jaungoicoaren leguezco mandamendu sanduac jaquingabe, eta
guardatu gabe nola avebat egalic gave, cerengatic cala nola avebatec ezpaitroque bila vere
alimentua, ezpaitroque conseguiri vere fina, zoinbaita bolacea egalic gave, cala christiobatec
eztroquezu logra vere azquen fina zoin baita ceruco gloriara Jaungoicoaren leguezco
mandamendu sanduac jaquin gave, eta guardatu gave, guardaceco bada mandamendu cuec
necesario duzu jaqudea, eta esplicacioaren aicea: Amar dituzu Jaungoicoaren leguezco
mandamendu sanduac; lena Jaungoicoa onesdezagula gauza guciac beño gueyago, cau
duzu mandamentuetan den supremo eta principalena, cala erancizun Jaungoicoberac, eta
esplicacen diaucuzu gure maestro Jesuchristoc escritura sanduan, San Lucasen amar

garren capituloan iz quequin, diliges dominum Deum tuum ex toto corde tuo, et tota anima tus, et ex omnibus viribus tuis, et ex tota mente tus onesdezacie zuen Jangoicoa vioz guciarequin, arima guciarequin, zuen indarguciequin eta zuen entendimentu guciarequin; mandamentuconen gañan galdeguiten dizu catecismoac certra obligacen gutuen mandamentuconec, eta respta duzu obligacen gutiela Jaungoicoaren adorazca corpuz eta arimaren reverencia andibatequin, ginesten eta esperacendugula aren baitan fede bicibatequin, prosequicen dizu norc vecatu eguitendu mandamendu conen contra, ginesten edo adoracenduenac idolo edo Jaungoico falsuac, edo erraten duenac drela aniz Jaungoico; noro gueyago usacen duenac echiceria edo gauza supersticiosotan zoinbautaudu debetaturic Jaungoicoaren leguean cau duzu catecismo edo doctrinas erraten daucuna; usteducia dotrina esplicacio cau dela asqui len mandamentu conequin cumplicece bada eztuzu asqui cerengatic manacenbaitu gueyago mandamentuconec.

Manacendiaucuzu lenic onesdezagula Jaungoicoa gauzaguciac veño guiago gure vioz guciarequin, naiduzu erran conec cain andi izanbearduela gure amorioac Jaungoicoarengana ezilenago beardugula permititu galcea gure fama, honrra, acienda, interes eta azquenean gure vicia ezi Jaungoicoa ofenditu, cala egon beardizu disponitric christioaren vorondateac Jaungoicoaren onestra, eta verzala eztizu cumplicen mandamentu conequin, aizacie exemplo cau erregue batec intentatucizun casamentu torpe desonesto bat, eta contacto bearzizun cavallero principalebaten consentimentua, deatucizun vere gana cavalleroa eta erran ciacozun baya casamentu cau beardiagu eguin eta eztic erremedioric emanbearduc ire consentimentua, respondatuciacozun cavallero virtuosoac Jauna concienziac eztezaquet eman calaco consentimenturic, nola ezta asqui nic erratea, jauna ezpaneza Jaungoicoa ofendi eguinezaque vocic, baya parca veza eztroquet eguin zeren eguinen baitut vecatu mortale bat, eguin vearduzu edo verzala patrenduzu zure viciarequin, Jauna balimada Justiciaric contacto nayaco dizut vicia uzi ezi Jaungoicoa ofenditu, manatucizun eser cezayela calabozo batean obligaeraciceco vere consentimentraren ematra; eramancizien calabozoala cargatu cicien grillo eta cadenz quendu ziazcozun erreguec vere Palacio eta ontarzun Juciac cavallero miserable conen emaztea erdeten cinuen affigituric, eta galdric bere seme guciequin, escatucizun Lic.^a vere senararen ecustra goateco, ematen diacocie, goancinuen vere seme guciequin presentatucinuen vere senararen alcinean nearrez eta erratendiacozu po(b)sibledaya enersenar maltea ecusdezazun cainberce lastima, eztituzua ecusten zure vioceco prenda cuec zure semecuec galdric baracendrela seculaco, eznuzua ecusten ni affigituric eta miseriatic veteric seculaco eta guzia zure gatic, cer costacenzaizu consetra erregueren vorondatearequin cortan balimadago gure fortuna gucia, gure felicidad gucia; eta alteratu bague caballeroac errespondatuciacozun vere emazteari Luisa ene emazte maitea zomat iragunendu fortuna correc edo felicidad erraten duzun correc 30 u 40 urte bien eta 30 u 40 urteren gatic naiduzua galdezagun Jaungoicoa, eta Jaungoicoarequin batean seculaco felicidades mercatari gasta zara zu, vesarcatucizun vere emaztea, baietara vere semac eta guciac nearrez despeitu zizan eta baratucinuen bere calabozoan, eta ecusten zuelaric erreguec cegola cain fuertea manatu zizun lepoaren gencea, eta cala uzi cizun vere vicia ez Jaungoicoa ofendiceagatic, cauduzu Jaungoicoaren onestea determinacea lenago vicia galdu ezi Jaungoicoa ofenditu.

Esplacacio edo exemploconequin ecustedizugu nola beardugun onesi Jaungoicoa, baya ecusibeardizugu claroago cer naidacun erran conec onesdezagula Jaungoicoa gauza gucien ganetic; onesteco Jaungoicoa gauzaguciaobeño gueyago bearditugua verce gañalaco gauzac despreciatu, beardugua uzi mundua, beardugua uzi gure aciendac gure ontarzunac cainberce estimacenditugun gauza cuec, ez por cierto cerengatic ontarzun andiren artean, riqueza andiren artean cerviza eta onesdiaitequezu Jaungoicoa gauzaguciac

beño gueyago, cor diaudezu Job, David, Abran. Job izancinuen ontarzun anditaco guizon bat, David izan cinuen erreguen, grandeza andien artean, bata eta bercea cinzan sandu eta vituoso ceren onesten baizuten Jaungoicoa veren ontarzun eta riquezac beño gueyago; bada Jauna onesten ditugularic gauza cuec cainberce nola beardugu onesi Jaungoicoa gauza guciac beño gueyago edo cerda Jaungoicoaren onestea gauzaguciac beño gueyago; cer. egotea cristiobaten borondatea determinaturic lenago galzra gauza cuec gucioc ezi Jaungoicoa ofenditu; eziakizut asqui claro erratendutanez baya claroago zuen baitan igarecendren gauzaberequin beardauciet eman izagutra onestenducienez edo ez gauzaguciac beño queyago; Jauna erranen dizu batec manacendiatazu mandamenduconec onesdezatala Jaungoicoa gauza guciac beño queyago vioz guciarequin arimaguciarequin, eztuzu posible cau cerenbaitaucat nore vioza, eta viozareq nore amorioa aniz gauzatan, nic beardizut onesi eta maitatu nore senarra, cauduzu justo, nic beardizut maitatu onesi, azi eta cuidatu nore semeac cauduzu obligacio, ene viciaren conserbacea, cauduzu naturale, miracea nore honrra, reputacio eta famaren gatic cauduzu preciso procuracea nore humeen, eta esearen sustentuarendaco eta mantenazeco cau eztiaitequezu escusa, contaco obligaturic niozu trabajazra nore aciendara, estimazra nore ontarzunac, deseazra conbenienciatic, eta guisacontan ecustenduzu Jauna ocupatric ene vioz gucia, atencio gucia cuetan, eta aniz aldiz eznuzu oricen egun guzian avemaria baten errezarza, eta gueyago eramaten dicie ene cuidadoa ene vioza gauza cuec ezi Jaungoicoac, eta nola beardut onesi Jaungoicoa gauza guciac beño gueyago eztuzu posible. Ziaustie inocenteac cortan berean onesten ducie Jaungoicoa eta cervizazen ducie Jaungoicoa ceren cumplicen baitucie zuen obligacioarequin, gauza Jaungoicoa gauzaguciac beño gueyago edo ez, errandaztacie dagoa zuen borondatea determinaturic galzra lenago senarra, semeac, acienda, eta ontarzunac ezi Jaungoicoa ofenditubay edo ez cala balimadago zuen borondatea, onestenducie Jaungoicoa gauzaguciabeño. gueyago, eta berzala eztucie onesten Jaungoicoa ezetare guardacen Aren leguea.

Manacen daucua mandamdu conec verce zomait gauza manacen diaucuzu eta esercen obligacio eguiteco acto fede esperanza eta caritatezcoa, dificultadea duzu jaquitea noiz eta nola eguin beardren actocuec; asentacendicie bada autorec Cristiobatec duela obligacio acto cuen egitra tembraquetan 1.^a llagacen denean usuarraciola zoin izaten baita zazpi urteen cumpliceartan noizere sarcenbaizayo obligacio cumplicececo eliza amasanduaeren mandamendu guciequin. 2.^a urtean veguin. 3.^a ecustenduenbatec vere ilceco peligran, 4.^a erdeten denean christiobat tentacio andibazuequin, virtutecuen contra, edo egotendenean chrristiobat cain aborrecituric vere, viziay, ezi peligracen baitu fedearen galcea, orduan remedioric obenena duzu baliacea acto fede esperanza eta charitatezcobercz virtutecuen contra izaten ditugun tentacioen venciceco tembracuetan bada diaucazugu obligacio acto cuen eguitra; eta nola eguin bear ditugu acto cuec Jaungoicoari graciatic, onesten, ginesten eta esperacen dizugu Jaungoicoaren baitan, eztaya cau asqui obligacio conequin cumplicececo, eztrayecuec acto fede esperanza eta caritatezcoac, eguiaduzu bayez baya dituzu acto interioreac edo viozezcoac, baya mandamenduconec manacen diaucuzu acto exterioreac, naidizut erran ezi gure viozareqn. ginesten, onesten eta esperacen dugunean Jaungoicoaren baitan tembraberean gure miarequin edo gure izequin veiar dizu manifestatu viozaz deseacen dugun gauza bera, erranez ginestenduc Jaungoico aitaguziz poderosoaren izquec, zuen sosegutaco eta obligacioconequin cumplicececo eman beardauciec erreglabat facil eta clara; cierto duzu dugula preceptua, dugula obligacioa, baya eztutu cierto, noicetic noiceala obligacendaucun ilabetetic ilabeteala, edo urtetic urteala, conque cer erremedio ez faltaceco obligaciocontra acostumrazaitetzte eguitra edo erratra acto contriziozcoa elizan sarcenzradien guciatan velauciatu eta bereala erran acto contriziozcoa intencionequin cunplicececo acto fede esperanza eta caritatezcoeqn. eta cau eguiten baducie,

egon zaizqueye segru zuen conciençian cumplicenduciela zuen obligacioarequin baietaren Jaungn. leguezco len mandamentu conequin asquiduzu dotrinaz proseguiceco etc. Ave Maria.

Cum audisset Jaonnes in viculis mat. loco citato.

becatuan viciena munducontan, eta duellaric oçasio ezipalimada elquicen vecatutic, eta apartacen vicio gastocartaric; dificultosoqui alcanzatrendizu calacoac Jaungoicoaren misericordiara, cerengatic declaracenbaita Jaungoicoaren asai ecus baleza cristiobatec vere burua ilceco peligroan, ezlozquea diligencia andiac eguin libraceagatic vere burua peligro cartaric? eztuzududaric contac eta berzala erranguinioquezu eztuela deseazen vere osasuna, declaracenduzu vereviciaren contrario eta ilenduzu vere peligro cartan; ilic diozu vecatumortalean dagonaren arrima, eta ezipalimadu procuracen vecatutic elquicea, eta cau lenbeñolen, eztizuquero naiduenean logratren vecatutic elquicea, oiuz diozu Jesuchristo vecatarier ne tardes converti de die in diem eztezaciela uzi egunbatetic berceala zuen vecatuetic elquicea, eztezaciela luza egunbatetic berceala comberticea ceren vecatubatec inclinacendidu gure apetitoa verce vecatubateala, eta carec vercebateala eta guisacontan imposibilitacenduzu gure salvacioa, ceren entregacenbaita gure vioza desenfrenaturic munduco vicietra. Jaungoicoac libradezala Cristioa entregacetic vecatu eguiteco viciobateala, ceren viciocartaric elquibeño len condenatren dizu vere arimara, eguiadu eztala Jaungoicoarendaco gauza imposibleric combertidiatequezu Zomaiden vecatari, baya dificultoso duzu vecatariaren vioza apartacea aniz tembratz egotenbalimada becatu eguiteco constumbrebatean desengañaua diaucazugu ebangelion. Herodes erregue famosobat entregaturic vecatu eguiteco vicio bateala diaucazugu egungo asuntoan, baya calaco maneran ezi vizi baicen Jaungoicoaren beldurric gave, Justiciaren veldurric gave, viciinuen vecatu publicoan, zeucalaric escandalo andibatean mundu gucia cain andicinuen guizon conen soberbiara, eta cain arimaric gave vizi cinuen vere vicioan, ezi ustevidecizun ezela Arendaco Jaungoicoaren leguea edo acaso uste videcizun cela Jaungoicoa beño gueyago; estado contra erausuicen dizu arima pobreac vecatu eguiteco costumbre maradicatuac baya guero recibicen dicie Jaungoicoaren castigu justoa; eta cer eguin cen erregue sovervio eta arimagavecau, baya cer eguinbearzuen vere viciac erratendizu, regularqui cala nola izatenbaita vicia cala izatenduzu ilcea; llegatu ciziaicozun, gucier llegatu vearzaicon vezala vere ilceco ordua, baya ezizun miserableac erden Jaungoicoaren misericordiara baicic vere arimaren condenaciona, onesi izanbalimalu Jaungoicoa munducontan, erdenen cizun piadoso ilceraco orduan, baya nola despreciatu Jaungoicoaren legue, despreciaturic izancinuen orducartan miserablea eta sentenciaturic ifernuco tormento inexplicable cayen seculaco padecizra, contan baracendituzu vecatarien izatea. Llegatu zizun errege conen atrevimentua Jaungoicoaren leguearen contra cainbercetra, ezi vizi baicen publicoan amancebaturic, eta lujuriazco vecatu torpe eta desonestoan, eta norequi vsteducie norequinbaicic vere anayebaten emaztearequin escandalizaturic ciaucazun mundugucia, nolabaicen erregue ta nolabaizuen dominio gauza gucien gañan, quenduciacozun bere aneye Philipori emaztea eta eramancizun veregana viciaceco libertade guciarequin, eta cala nola izanbalu emazte propia vizicinuen lujuriazco vecatu continobatean cala nola ezipaliz Jaungoicoaren legueric; vada cer ecena iorere munducontan reprediceco, edo corregiceco vicio cau, elquicedien guizon cau estado gasto contaric, bacinuen baya ezizun casoric eguin nay baicic seguitu vere gustoer, alcabo determinatucinen S. Juan Jesuchristoren precari celoso cura ichiquiric Jaungoicoaren Amorioan, eta icusiric demonioec eraman bearzutela guizon caren arimara ezipacen apartacen oçasio cartaric, corregizra eta repredizra publicoan erregue caren atrevienzara, eta erranciacozun jaquinzac erregue desonestoa debetaturic dagola Jaungoicoaren leguean

lujuriazco vecatuan vizicea eta ezaic licito iduquicea sore companian emazte manzaba eta desonesta cori condenatu bearducie batorrec eta verceorrec ezpazradie apartacen vicio maradicatu cortaric eta ezpazradie converticen Jaungoicoaren gana, eta eguiten penitencia zuen vecatuez eta usteducia emendatucela Jaungoicoaren avisuconequin, esericzun preso santu glorioso, eta alcabo degollatu ceren predicatu baizuen eta errepreitu Jaungoicoac manacenduena, arrapaturic ziauzcazun demonioac lujurioso cayen arimac, eta cala condenatucinzan viac.

O ene christioac zomat guerla eguitendaucun demoniac munducon principalqui izaguten balimadu gure naturalezara inclinacendela viciobateala candic veretic eserizendiacozu ocasioa eta tentacioa eta eztuzu baratren, eztuzu apartatren aliqueta vecatuan erorierazi arteo, baya o ene christioac llegatcen duzu tembrateala zointan ezpaitu ez demonioac ceraniz tentatu, asqui demonio guituzu guaur ezi azeric gure Jaungoico Soberanoaz, azeric Jesuchristoz, ecustendugularic egunoro enclabaturic curuze cortan, gure arimen salvaceagatic guaurec vilacendizugu vecatua, guaurec ocasio eta peligroa, eta aniz aldiz ezquiaudezu content ezpalimadugu Jaungoicoa ofendizen elquiceagatic gure gogoac escacendaucunarequin, animazteye gucioc baya prinicpalqui gazteac zuen vicio eta inclinacio ciyen seguizra, zuec izanenduzie pagua; galduric diozu mundua ceren ezpaitu pensacen iorquere vecatubaten eguitra doaienean ni cer eguitra noaie; baicic o oraisa meza enzuteagatic eztiagu viagea galdubear uzagun meza aldebat, juramentu falsu baten eguitean edo ez eguitean edo ez eguiten diozu logracea calaco conbenienciara, calaco fortunara, eguin zagun juramentu falsubat, ya que juntatubaicera orai iorc ecusten ezquituen lecuan erori bear nagun lujuriazco becatuan, bada cuec gucioc badiaquicie estado contan ilcenbadra beardutela condenatu, baya ó esperanza vanao confesatren guituzu, eta correquin Jaungoicoac parcatren diauzcuzu gure vecatuac, ó esperanza vanao vadaquia christiobatec vecatuan erorizgueroz llegatrendenez edo ez confesazra segru dauca vere vicia, quemen sitenduzu ongui Abras abaricioso ceren exemploa, Abras abaricioso conec azeric Jaungoicoaren legueaz, vere codicia eta abariciaren medioz juntatucizun bear eztenbidez ontarzun aniz, cainberce ezi gastaturic ere naizuen gucia sobratuic zizun vere vici guciaren igarececo ecusi cenean estado contan eguitencizun gala eta erraten ciacozun bere buruari ea triunfa eta gasta dezac orai gogoac escacendaucan gucia, viciadi convenienziarequin aseguratuc dauzcac aniz urtetaco ontarzunac eta cer suceditu zizaicon; guacartan verean ilcinuen, eta ontarzunac baratu cinzan munducontan eta vera candiozu erreccen infernuan, cer provechu elquizuen caballero conec juntatuaz cainberce ontarzun aniz urtetaco, galtatu balima dra urteac ontarzunen gozaceco.

II

Liber generationis Jesuchristi filij David, filij Abram abraham jenuit Ysac. Jacob autem jenuit Joseph virum Marie, de qua natus est Jesus, qui vocatur Christus. Mat. cap. I.

Cerengatic eguitenducie near Sⁿ Joaquin eta Santa Ana gloriosoac? noladaude cain turbaturic zuen viozac eztraya acabatu Zuen desprecioac? eztrayaacabatu Zuen Susto eta desconsoluac eztaucacia Zuen besoetan alaba maiteMaria Santisima, aurora resplandeciente, Princesa Soberana cori bay porcierto, o gusto near eracarcenduena! o vi vioz amante cayen gozoa! o alegria incomprendiblea! egun bada ene auditorioa cain deseaturic Sortu izan cinuen Maria Santissima Nazareteco Ciudadean, San Joaquin eta Santa Ana cain feliz nola dichoso cayen ganic, egun elquicinuen munduala aurora resplandeciente cau desterrazra bere claridadearequin obscuridade eta tiniebla guciac, consolazra Adanen Seme miserableac, libertazra esai infernalearen poderiotic gure arimac

eta eserzra gucioc Salbacioaren videan, o egun feliz eta dichosoa! baya nic cer erranen dut egun cain andi eta misterioz veteriz dagon contan? bearbalimadut minzatu acierto, eta propiedaderequin preciso guianazan escritura Sanduac, erreguen len libruan erraten dizu Philisteo natione sobervio carec emprenditu zuela guerla Ysrraelita humilde cayen contra, vi aldiz vencitu cicien Ysrraelitac erdeten Zrelaric pobreac angustiatu ric miseria contan determinatu cicien elquicea veren compaÑian veneratric eta adoratric Zaucayen fedearen arca edo Sagrario misterioa, confiatric ayec ezroqueyena obratren zuela Jaungoicoac discurso admirablea contan ciozun ayen fortuna eta felicida.^a apenas elquibaizuyen Siloco Ciudadetic arca soberanoa, apen.s ecusibaizuyen Ysrraelitec sitencela ayen consolu eta faborea uziric aldebat beldur eta aliccionea erraten dizu testoac asi zrela alegriaz veteric sonacen trmpeta eta clarinac, pifano chirimia, eta atabalac, guciac batean calaco oyu eta demostracioarequin iduri zuela oyu eguiten zuela aizeac, resonacen zuela oyanec eta lurrac vociferatus est Ysrrael clamore valido ita ut personuerit terra: venit Deus in castra, venit Deus in castra: aitu zutenean Filisteoec cainberce alegria eta demostracio izagundu cicien Jaung.^a cegola Ysrraeliten faboretan, eta bereala iesa eguin cicien beldurtu ric, eta baratu cinzan vencedore eta victorioso venit Deus in castra egun bada ene auditoria, egun M.^a Santissimaren debotoac, egun manifestacen duzu Jaung.n misericordia infinito, egun egorcen diaucuzu munduala Maria Santissima arca misterioa, custodia amorosoa baya cain misericordiosa eta valerosa ezi ez solamente baracen dituzu vencitu ric Philisteo esay infernaleac, bayetare reconcialitu ric cerua lurrarequin, vencia tria jaung.n ala erraten dizu D.S. Buenaben benedicta es Maria quia perte diabolus ab homine separatur; et homo Deo gratificatur. delaric bada cierto segun S.n Juan Damascenoc ezi Maria San.n nativitatea izancela gure reparacio, eta Salbacioaren principioa beardizugu ecusi nola eta guiacen nuelaric evangelioa sarcen nuzur doctrinan.

Duzu articulo fedezcoa trinitate Sanduco.